

Istripu-Asegurua

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

BBVA ALLIANZ SEGUROS Y REASEGUROS, S.A., helbide soziala Espainian duena
(klabea: DGSFP C-0807)

Produktua: Miniseguro Accidentes BBVA Allianz

Produktuaren kontratu aurreko eta kontratuzko informazio osoa beste dokumentu batzuetan ematen da.

Zertan datzate mota honetako aseguruak?

Istripu-aseguru bat da, urtekoa eta berriro daitekeena, heriotza- eta asistentzia-prestazioko estaldurak barne hartzen dituena (ospitaleratzearengatiko eguneroko kalte-ordaina), aseguru-kontratuak estalitako istripu bat izan duzunean.



Zer aseguratzen da?

- ✓ **Istripuaren eraginez Aseguruduna hiltzea.**
Aseguru-etxeak Baldintza Berezietan adierazi dituzun onuradunei kaltea ordainduko die, aseguru-kontratuak estalitako istripu batean hiltzen bazara.
- ✓ **Aseguruduna Zirkulazio Istripu baten ondorioz hiltzea.**
Aseguru-etxeak Baldintza Berezietan adierazi dituzun onuradunei kaltea ordainduko die, ibilgailu batek eragindako istripu batean oinezko gisa hiltzen bazara, edo automobil, 125 cc arteko ziklomotor edo quad bateko gidari edo bidaiari gisa, edo lurreko garraiobide publiko bateko erabiltzaile gisa.

- ✓ **Asegurudunaren ezkontidea Zirkulazio Istripuan hiltzea, Aseguruduna hiltzen den istripu berean.**
Aseguru-etxeak Baldintza Berezietan adierazi dituzun onuradunei kaltea ordainduko die, zure ezkontidea zure heriotza eragin duen zirkulazio-istripu berean hiltzen bada.
- ✓ **Istripuak eragindako Ospitaleratzearengatiko Eguneroko Kalte-ordaina.**
Aseguru-etxeak eguneroko kalte-ordaina emango ditu aseguru-kontratuak estalitako istripu baten eraginaz ospitaleraten bazaituzte.
Berme bakoitzeko aseguraturako zenbatekoa aseguru-kontratuko Baldintza Berezietan agertuko da.



Zer ez dago aseguraturuta?

Hona, laburbilduta, salbuespen nagusiak; Informazio Orrian eta Baldintza Orokorretan osorik eskura daukazku.

Bazter geratuko dira arrazoi hauen eraginez gertaturiko istripuetatik eratorritako heriotza eta ospitaleratzearengatiko kalte-ordaina:

BERME GUZTIETAN

- ✗ Erreakzio edo erradiazio nuklear edo kutsadura erradiaktiboaren ondorio zuzen edo zeharkako gisa gertaturikoak. Lurrikarek, sumendi-erupzioek, uholdeek edo urakanek sorturikoak eta nazioko Gobernuak hondamendi edo zorigaitz nazional izendatzen dituen egoeretatik eratorritakoak.
- ✗ Aseguru-kontratu indarrean sartzen den egunaren aurretik gertatutako gaixotasunaren edo istripuaren ondorioak, horien ondorioak honen indarraldian iraun, agertu edo ezartzen badira ere.
- ✗ Urpeko nabigazioa edo esplorazio-bidaiek praktikatzetik, eta baita honako kirolak egitetik eratorritako istripuak ere: zaldiketa, eskia lehiaketan, alpinismoa, espeleologia, borroka, boxeoa, borroka-arteak, urperaldiak, aireko kirolak, automobilismoa, motoziklismoa, errugbia eta poloa.
- ✗ Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak estalitako arriskuak

- ✗ Aseguratuaren arduragabekeria edo axolagabekeria larriko ekintza baten ondorioak, baita Aseguratuak delitu-ekintzetan, lehiaketetan, apustuetan, duelu edo liskarretan parte hartzeagatik eratorritakoak ere, beti ere, azken kasu horretan, defentsa legitimoan edo pertsonak edo ondasunak salbatzeko saiakeran ez bada.

ISTRIPUAK ERAGINDAKO HERIOTZA-BERMEAN

- ✗ Garun-hodietako eta bihotz-hodietako istripuak, esate baterako aneurismak, infartuak, hemorragiak, iktusak eta antzekoak, diagnostiko-prozesu inbasiboetatik edo edonolako tratamendu mediko edo kirurgikoen aurkako erreakzioen ondoriozkoak, zorabioen, sinkopeen, edozein izaerako epilepsia-atakeen ondoriozkoak, egoera morboso edo endekapenezkoak eta herniak, edozein jatorrikoak.

ISTRIPUAK ERAGINDAKO OSPITALERATZEARENGATIKO

- ✗ Patinatzea, oro har, hockeya barne.
- ✗ Atsedeen-sendaketak, termalak, edo dietetikoak eta osasun-txekeak edo kontrolak.
- ✗ Klinikoki egiaztatu ezin diren sintoma objektiborik ematen ez duten neuropatiak eta algioatiak.
- ✗ Estalitako istripu baten ondorioak edo eraginak, hura gertatzen den egunetik 365 egun igarota agertzen direnean, istripuaren ondorio zuzena direla egiaztatzeko modurik ez bada.

Istripu-Asegurua

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

BBVA ALLIANZ SEGUROS Y REASEGUROS, S.A., helbide soziala Espainian duena
(klabea: DGSFP C-0807)

Produktua: Miniseguro Accidentes BBVA Allianz



Ba al dago Estaldurari dagokion murrizketarik?

Hona, laburbilduta, murrizketa nagusiak; Informazio Orrian eta Baldintza Orokorretan osorik eskura dauzkazu.

! Istripuak eragindako heriotza istripua gertatzen denetik 24 hilabeteko epean jazo behar da.

! Zirkulazio-istripuak eragindako heriotza edota zure ezkontidea zu hiltzen zaren istripu berean hiltzea, istripua gertatzen denetik 12 hilabetera gertatu behar da gehienez.

! Ospitaleratzeak 96 orduetik gorakoa izan behar du, Espainian dagoen ospitale batean. Kalte-ordainaren gehieneko epea urte betekoa da.



Non nago estalita?

✓ Mundu osoan, Istripuak eragindako Ospitaleratzearengatik Eguneroko Kalte-ordainaren bermea salbu, Lurralde Nazionalera mugatzen baita.



Zeintzuk dira nire betebeharrak?

- BBVA Allianz Seguros-ek eskatzen dituen galdetegiak egia esanez erantzutea, arriskua behar bezala baloratu ahal izateko.
- Aseguruaren prezioa ordaintzea.
- Aseguru-kontratuan ageri diren datuak zuzenak direla egiaztatzea.
- Istripua gertatuz gero, BBVA Allianz Seguros-i 7 eguneko epean jakinaraztea eta hura egiaztatzen duen dokumentazioa helaraztea, espedientea behar bezala tramitatu ahal izateko.
- BBVA Allianz Seguros-i zure datu pertsonalen aldaketen berri ematea.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

- Aseguruaren ordainagiria zuk adierazten diguzun bankuko kontuan helbideratuko dugu.
- Honako ordainketa-aukera hauen artean hautatu ahal izango duzu: hiru hilean behin, sei hilean behin edo urtean behin.



Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?

Kontratua hasierako datako 00:00etan indarrean sartuko da eta urte beteko iraupena du. Automatikoki berrituko da, urtero, zuk edo BBVA Allianz Seguros-ek aurkakorik adierazi ezean eta aseguru-kontratua honako kasuetakoren bat ematen denean amaituko da:

- 70 urte betetzen dituzunean.
- Aseguruaren salneurriaren aldian behingo ordainketa egiten ez baduzu.
- Heriotza.



Nola amai dezaket kontratua?

BBVA Allianz Istripu Mini-aseguruaren kontratua urtekoa da, hiru hilean, sei hilean edo urtean behin ordainduagatik. Kontratua berritu ez dadila eskatzeko, amaierako data baino hilabete lehenago jakinarazi beharko diguzu, zure NANaren edo zure nortasuna egiaztatzen duen beste dokumentu baten kopia erantsita, eta BBVA Allianz Seguros-era bidali, polizaren Baldintza Orokorretan ageri den helbide sozialera, Ramírez de Arrellano, 35 - 28043 Madrid, edo BBVA Taldeko edozein bulegora joanez, edo helbide elektronikora seguros@bbvaallianz.es.